

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

# Euskal metropolia

**H**auteskunde espainiarrek utzitako zapo-  
re gozoarekin ekin zaio bigarren txan-  
pari. EH Bilduk erronka zaila zuen pare-  
an: marko estatala berez da zaila,  
gehitu horri polarizazio handiko tes-  
tuingurua eta 2016ko hauteskunde-  
aurrekari negatiboa. Zailtasun denen gainetik emai-  
tza txukunak lortu ditu ezkerreko independentismo-  
ak: sumatzen zen goranzko joera konfirmatu dute eta  
egoera animiko ona sortu datorren asteko hautes-  
kundeei begira.

Irakurketa sakonagoak egiteko patxada ere hartu  
beharko da, datorren asteko emaitzekin adierazle  
kuantitatibo asko izango baitira mahai gainean. Mo-  
mentuz, joera orokorra positiboa dela baieztatu daite-  
ke: herri ikuspegitik, hauteskunde espainiarren emai-  
tzeak euskal markoa indartu izana adierazten dutela  
aipatu da, marko espainiarra indartsua izanik ere,  
euskal hautesleriak logika propio baten arabera boz-  
katu duela, alegia. Eskuin  
espainolaren porrota begi  
bistakoa izan da Euskal He-  
rrian –lehen aldiz PPk ez du  
eserlekurik atera–, PNV  
euskal soziologia kontser-  
badorearen erreferentzia  
politiko bilakatuz. Ezkerre-  
ko independentismoari  
erreparatuta, EH Bilduren  
gorpuzte politiko-ideologi-  
ko bat erakusten dute  
emaitzek, hazkunde prozesu emankor bat aukera be-  
rriak proiektatzen dituen.

Analisi xeheagoak egitera ere behartuta gaude, eta  
egiten hasita ezin aipatu gabe utzi ezkerreko indepen-  
dentismoak euskal metropolian duen hutsunea. Bis-  
takoa da erro sakonak dituen arazo baten aurrean  
gaudela, eta beraz, analisi konplexuen beharrea gau-  
dela. Oinarri-oinarrira jota, ezkerreko independentis-  
moak ez du euskal metropoliarentzat narratiba bat  
garatzen jakin azken urte luzeetan.

PNV badu narratiba bat, arrakastatsua dena sozial-  
ki, neoliberala –Unai Rementeria-aren diskurtsoak ezin  
argiago frogatzen duenez–, baina bertako identitatea-  
rekin konektatzen asmatu duena. Bilboren eraberritze  
urbanistiko ikusgarria eta Guggenheim efektua balia-

tuz Bilbo nazioartean kokatzen duen narratiba arra-  
kastatsu bat eraiki du PNVk. Ezkerreko independentis-  
moa, aldiz, arrakastatsua gertatu den eraberritze ur-  
banistiko horren proiektu traktore nagusien aurka  
egon da –Metroa, Guggenheim–, PNVren narratibari  
kontrajarri dakiokkeen beste bat sortzeko gaitasunik  
izan gabe. PNVrekiko ezezkotasunean autoeratu da ez-  
kerreko independentismoa metropolian eta ez du po-  
sizio sozial propio bat irabazten jakin.

Ezker independentismoak eman ditu jauzi kualitati-  
boak beste lurralde-eremu batzuetan azken urteetan:  
Arabian eta Ipar Euskal Herrian, zehazki. Zentralitatea  
borrokatzeko gai den posizio sozial bat garatu du eta  
bertako gizarte mugimenduek planteatu dituzten al-  
daketa-bektoreekin bat egin du –Arabian Fracking Ez,  
Garroña, Gora Gasteiz eta abar; Iparraldean instituzio-  
nalizazio prozesua elikatu dutenak–. Nafarroa lurral-  
de historikoa da ezkerreko independentismoaren  
imaginarioan eta, gainera, kuneteroen kontrako gudu-

Oinarri-oinarrira jota, ezkerreko  
independentismoak ez du euskal  
metropoliarentzat narratiba bat  
garatzen jakin azken urte luzeetan

zelaia. Gipuzkoa, aldiz, herrialde abertzale eta euskal-  
dunena da, bere territorio naturala, nolabait esatea-  
rren. Baina, eta Bizkaia mendebaldea?

Arazoa Bilbo inguruan dagoen arren konponbideak  
ez dira Bilbotik soilik etorriko, ez baita Euskal Herria-  
ren edozein zati, Euskal Herriko metropoliaz ari gara,  
biztanleriaren heren bat bizi den zonaldeaz. Eta beraz,  
neurri handi batean, independentismoak Bilbo ingu-  
ruan behar duen narratiba berria herri-narratiba be-  
rria izango da. Proiektu independentistak eman behar  
dio leku bat metropoliari eta ez alderantziz: Zer da zo-  
nalde hori Euskal Herriarentzat? Zein da independen-  
tismoaren proiektua euskal metropolian? Oinarrizko  
galderak egitera behartuta gaude hurrengo hautes-  
kunde zikloan jauzi bat eman nahi baldin badugu. •